Curtain eta Pesola-k diote, bestalde, goiz hasteak baduela abantailarik denbora gehiago dedikatu zaiolako hizkuntzaren ikaskuntzari; baina, hori bai, erabili den metodologia egokia baldin bada eta adin horien ezaugarriak kontuan hartu eta aprobetxatzen baditu. (Curtain, Pesola, 1994: 2)

Genion bezala, hiru esperientzia jarri ditu martxan Hezkuntza Sailak:

Ingeleraren ikaskuntza goiztiarra: 4 urtetik 8ra

Edukian oinarritutako ingelesaren ikaskuntza: 8 urtetik 12ra

Edukian oinarritutako ingelesaren ikaskuntza: 12 urtetik 16ra

Ingelesaren hastapen goiztiarraz hitz egin dugu lehenago. Kasu honetan, esperientziaren gidaria AHIZKE-CIM da. Kuriosoena zera da: esperientziaren ikastetxe gehienak hemen daudela (askoz eskari gehiago zeudelako) eta beste hainbat ikastetxe publiko, bere kabuz eta aholkularitza haundirik gabe ari da, dirudienez, "horrelako" zerbait egin nahian 4 urterekin. Egia esan, konpetentzia-tresna bihurtu da ingeles goiztiarra matrikula kanpainetan eta laister ikusiko ditugu ikastetxe gehienak lehia honetan. Eta gero? Zer gertatuko da 8 urterekin? Hortxe dago kokka, jarraipenean, esan dugu bezala.

Beste bi esperientziak "Content Based" izeneko metodologiaren barruan kokatzen dira eta metodologia horrek murgiltze-metodologiatik edaten du zuzen zuzenean (National Center for Research on Cultural Diversity and Second Language Learning, 1995). Ez da juxtu juxtu "content related" metodologia (Lehen Hezkuntzako ingelesean erabiltzen dena), zerbait serioagoa baizik. Edukian oinarritutako metodologia honek ingelesa edukien ikaskuntzan erabiltzen du, Plastika, Musika zein Zientzietako edukiak ikasteko hain zuzen ere. Hezkuntza Sailaren esperientzia hauen gidaritzan HIZPEIren eskuetan dago.

Esperientzia hauek zer emango duten ikusteko dago oraindik (urtebete besterik ez daramate lanean) baina, dena den, badakigu zeintzuk diren, oraintxe bertan, atzerriko-hizkuntzen irakaskuntzarako programa guztietan arazorik latzenak:

Irakasle prestatuen eskasia.

Aholkularitza didaktikoaren falta.

Material espezifikoaren gabezia.

Irakasle eleaniztunen eskasia oso garbia da. Behar ditugunak, gainera ez dira bi edo hiru hizkuntzen jabe bakarrik izan behar (euskara eta ingelera gutxienez) baizik eta, horrez gain, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakasteko trebatuak izan behar dute. Alferrik da ingeles-maila ona edukitzea 4 eta 5 urteko haurrekin zer egin ez badakite. Artigalek dioenez, *lehen, eskolaurreko irakasle on bat izatea da*. Gero gerokak.

Baina irakasle onak izanda ere, zer egin? Eta nola egin? Irakaskuntza mota hauetan esperientzia duten espezialistak behar ditugu eta oso gutti dira euskalerrian ditugunak. Denborarekin gehiago izango dira, baina ez da gomendagarria hirugarren hizkuntzaren ikaskuntzan inprobisatzen ibiltzea. Hasiera batean, beti bezala, mundu guztiak joko du ingelesa eskaintzera, baina denborarekin garbi ikusiko da batzuek ondo egiten dutela eta besteek gaizki, ezin baita nolana, materialik gabe, ideia eta proiektu konkreturik gabe asmatu.

Materiala ere, lehen esperientzien fruitua izango da, ongi egiten baldin badira.

Hirugarren hizkuntzaren ikaskuntzan ere, aitzindariak gara Euskalerrian eta laister "esportatzaileak" izan gaitzake gauzak ondo eginez gero. Europa guztia, Amerika (abiaturik dira batzuk) guztia bide beretik abiatuko dira berandu baino lehen, hori bistan dago, eta ordurako komeniko litzaiguke eskaintzeko zerbait edukitzea, ez inprobisatuz, baizik eta seriozki eta apurka-apurka eraikiz, bigarren hizkuntzarekin egin dugun bezala edo hobeto, ahal bada.

Eta bigarren hizkuntzari buruz zer? Ba ez zaiola gaizki etorriko. Alde batetik, egia da, konpetentzia izugarria dator, *izarra* ingelesa izango baita, baina konpetentzia ez da txarra. Bazen garaia "pinutik erortzeko" eta gure metodologiak birraztertzeke: hobetu dezagun oraintxe bigarren hizkuntzaren ikaskuntza! Hau da momentua!

Murgiltze-metodologiak ikaragarriko aurrerapenak egin ditu bere planteamenduetan: zehaztasun metodologikoa, ebaluazioa, ikerketa... Ez da aitzaki txarra: hirugarren hizkuntzarako metodologiak "geurea" erabiltzen hasten direnean eta horri esker arrakasta izan, iritsi da momentua euskararen irakaskuntza efikazagoa bihurtzeko. Egin zeuen buruari honako galdera hau: gure ikasle erdaldunen euskara-ordu guzti horietatik (B eta D ereduetan hain zuzen ere), zenbat minutu dira benetan baliogarriak hizkuntza garatu edo ikasten jarraitzeko?

Ezin da beti bezala betiko jarraitu. Mundua ez da gelditzen eta hizkuntzen irakaskuntzan are gutxiago. Mugi gaitezen bada!

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK


CURTAIN H., PESOLA C. (1994) "Languages and children. Making the match" (Second edition) Longman. New York.

MARCOS K. (1994) "Internet for language teachers". ERIC Clearinghouse on Languages and Linguistics. Washington, D.C.

MCLAUGHLIN B. (1992) "Myths and Misconceptions About Second Language Learning: What Every Teacher Needs to Unlearn" ERIC Clearinghouse on Languages and Linguistics. Washington, D.C.

MET M. (1993) "Foreign language immersion programs" ERIC Clearinghouse on Languages and Linguistics. Washington, D.C.

National Center for Research on Cultural Diversity and Second Language Learning (1995) "Integrating Language and Content: Lessons from Immersion" ERIC Clearinghouse on Languages and Linguistics. Washington, D.C.



Arrasateko Umezaintza

"Eleanitz" eleaniztasune

Ingelesa 4 urtetik aurrera



"Formakuntza saio bat". Ikastolen Elkartea

Artikulu honen asmoa da Ikastolen Federazioaren Eleaniztasuneko proiektua aurkeztea. Irakaskuntza elebiduna (euskara erreferentziako hizkuntza nagusi bezala eta gaztelania edo frantsesa, bakoitza bere lurraldean) 30 urte baino gehiagoan ematen jardun ondoren, ikastolok eleaniztasunaren erronka egin diogu geure buruari, hau da, hiru hizkuntza edo gehiagoren ezagutza modu egokian lortzea suposatzen duena, edo beste modu batera esanda, aipatu bi hizkuntzen ezagutzari atzerriko hizkuntzen ezagutza efikaza gehitzea dakarrena.

1991-92ko ikasturtean ekin genion ingelesa modu goiztiarrean (4 urtetik aurrera) irakasteko esperientziari (metodologia berritzaile eta adinera egokitutako batekin), gero pausoz pauso 16 urte arte jarraitzeko, horretarako behar ziren material kurrikularrak sortuz eta irakasleen formazio eta segimendurako eta ikaslearen ebaluaziorako programa egokia prestatuz. Proiektua 8 ikastetxeko talde esperimental batekin hasi zen eta, gero, urtetik urtera handitzen joan da, azken ikasturtean 40 ikastetxetaraino iristeko Euskal Herri osoan banatuta (± 7.000 ikasle).

□ ELEANIZTASUN PROIEKTUA

Gure oinarrizko presupostuetako bat, euskarak eskola-eremuan hizkuntza nagusia izan behar duelakoa da. Beraz, eskola eremuko hizkuntz planifikazio guzti-guztiak gutxienez aurrebaldintza hori garantizatu beharko luke. Gure beste helburu osagarrietako bat, berriz, gurasoek eta oro har euskal gizarteak ere sakonki sentituta dena, pertsona eleanitzak formatzekoa da.

Horregatik, bada, lortu nahi dena da bi elementu hauekin jokatzea, hots: alde batetik, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea. Eta horrek, Euskal Herriko errealitatera ekarrita esan nahi du, bertako hizkuntza propioaz (euskara) eta kontaktuko hizkuntzez (gaztelania eta frantsesa, bakoitza bere lurraldean) gainera, atzerriko beste hizkuntzen ezagutza sartu behar dugula. Eta gure kasura etorrita, beste hizkuntzak ere irakasteko aukerak itxi gabe, baina gaur egungo eskaerari kasu eginez, derrigorrezko hezkuntzaren denboraldian (16 urte artekoa), ikastolak, beren ikasleek 4 hizkuntza (euskara, gaztelania, frantsesa eta

ko proiektua irrerera irakastea



*Xabier Garagorri
Itziar Elorza
Diana Lindsay*

Ikastolen Elkartea

ingelese) ezagutu eta erabiltzera iristeko moduko irakas-
kuntza planifikatzen ari gara.

PLANTEAMENDU OROKORRA

Hona hemen gure proiektuan proposatzen dugun ira-
kaskuntza eleanitzeko planteamendu orokorra:

| Maila | Adina | Euskara | Gaztelania | Ingelesa | Frantsesa | |
|--------|-------|---------|------------|----------|-----------|---|
| H.I. | 1 | 3-4 | X | | | |
| | 2 | 4-5 | X | X | | |
| | 3 | 5-6 | X | | X | |
| E.I. | 1 | 6-7 | X | | X | |
| | 2 | 7-8 | X | | X | |
| | 3 | 8-9 | X | X | X | |
| | 4 | 9-10 | X | X | X | |
| | 5 | 10-11 | X | X | X | |
| | 6 | 11-12 | X | X | X | |
| D.B.H. | 1 | 12-13 | X | X | X | X |
| | 2 | 13-14 | X | X | X | X |
| | 3 | 14-15 | X | X | X | X |
| | 4 | 15-16 | X | X | X | X |

Artikulu honetan, baina, eleaniztasuneko proiektuaren atal batean bakarrik zentratuko gara. Alegia, 4 urtetik aurrera atzerriko hizkuntza bezala ingelesa irakastea.

□ INGELESAREN SARRERA GOIZTIARRA

1. INGELESAREN IRAKASKUNTZAKO HELBURUAK

a) Epe laburrerako helburuak.

Ikasleak, Haur-Irakaskuntzaren bukaeran, lortuak izan behar ditu honako helburu hauek:

- Ingelesarekiko jarrera positiboa erakustea, interesa eta konfiantza azalduz horren erabileran, eta baita hizkuntza hori aurkezten den komunikazio-testuinguruarekiko ere, gogoz parte hartuz proposatutako jardueretan eta irakaslearekiko harremanetan.
- Mezuak interpretatu eta adieraztea testuinguru jakinetan (ingeleseko klaseko iharduerak) eta solaskide jakin batekin (irakaslearekin), hasieran irakasleak gidatutako ariketa batetik abiatuz, eta gero hauraren aldetik ariketa horiek berak erregulatu eta aldatzera pasaz.
- Hizkuntz sistema desberdinak erabili eta erlazionatzea, haur bakoitzaren hizkuntz ondarea eta orobat metalinguistikoa aberasteko, horri esker, gero, bere hizkuntza propioa eta etorkizunean ikas ditzakeen beste hizkuntzak hobeto ezagutu eta prozesatu ahal izango baititu.

b) Epe luzerako helburuak.

Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean (16 urterekin), lortuak izan beharko dituzte gutxienez atzerriko hizkuntzei buruzko Dekretu kurrikularrean etapa horretarako arauz seinalatutako ulermen, produkzio, irakurketa, idazketa, hizkuntz gogoeta, jarrera, etab. etarako hizkuntz gaitasunak.

Eta seinalatutako gutxienezko horiez gainera, proiektuaren helburu konkretuak dira, baita ere:

- Ikasleak irits daitezela ahozko eta idatzizko hartu-emanak ingelesez mantentzeko gai izatera oinarritzko komunikazioko eginkizun eta testuinguruetan.
- Erabil dezatela ingelesa alde aurretik ezarritako eskola-gaietako transmisio-hizkuntza bezala.
- Gai izan daitezela gogoeta gramatikal bat egiteko, bai ingelesari buruz eta baita ezagutzen dituzten beste hizkuntzekin dituen adostasun eta interferentziei buruz ere.
- Lor dezatela, gutxienez, esperientzia hau jarraitu ez duten ikasleek adinako hizkuntz gaitasuna euskaraz, hala konpetentzian nola jarreran.

2. OINARRI TEORIKOAK ETA METODOLOGIKOAK

Hemen bigarren hizkuntzak irakasteko aurkezten dugun ereduak, giza komunikazioaren izaeran eta hizkuntzak modu naturalean ezagutzeko prozesu elebarkar eta elebidunean du oinarri teorikoa (Vigotski, 1962; Austin, 1962; Brown, 1973;

Bruner, 1982; Taeschner, 1983; Wells, 1986; Artigal, 1992). Gure planteamendua oinarritzen da, ez hizkuntzan beran; bere ezaugarri estruktural eta morfologikoetan, baizik eta hizkuntza lortzeko prozesuaren izaeran. Hau da, hizkuntzaren jabeak elkarrekintza-testuinguru natural batean nola garatzen den aztertu, eta hor gertatzen diren prozesuak eskolako testuinguruan ere gerta daitezela baldintza didaktikoak ezartzen saiatzen gara.

Izan ere, eskolako ingurunea bigarren edo hirugarren hizkuntzak ikasteko testuinguru bezala aztertuz gero, kontuan izan beharreko bi alderdirekin egiten dugu topo:

- Ikuspegi soziolinguistikoko batetik, ikerketa ugari frogatu duten bezala, hizkuntz familia berekoa ez den hizkuntza batean edo bitan garatutako eskola-programa guztiak ez zaizkie mesedegarriak gertatzen aplikatzen zaizkien ikasleei. Programa-mota hauen arrakasta honako baldintza hauen menpe dago neurri handi batean:
 - Eskolak harreman eta irakaskuntzako tresna bezala (hasiera batean) erabiltzen dituen "hizkuntza berriek" ez dute inoiz ere gizartean ikasleen famili hizkuntza baino indartsuagoak izan behar.
 - Honelako programa batean sartzeak, gurasoen gogoko aukera bati eta programan inplikaturako ikastetxearen eta klaustroaren aldetiko konpromiso kolektibo bati erantzun behar dio.
 - Irakasleek, hautatu den hizkuntza berriaren bitartez behikulatutako elkarrekintzen komunikagarritasuna eta efikazia une oro garantizatzeko moduko ezagutza teoriakoen eta material praktikoen jabe izan behar dute.
- Eta beste aldetik, jakina, eskolako elkarrekintza sozialak bere ezaugarri propioak ditu, hots, umeei ama-hizkuntzak ikasi ohi dituzten ingurune familiarraz oso bestelakoak. Kontuan izanik hizkuntza berez elkarriketako hartu-emanen ikasten dela, alderdi hauetanxe zentratu da gure planteamendu teorikoa ere: lehenengo, giza komunikazioaren ezaugarriak aztertzean, horrela, gogobeteko komunikazioa egiteko behar diren baldintza sozialak zein diren ikusteko, eta, bigarren, pertsona helduaren eta hauraren arteko eta haurren beren arteko komunikazio-harremanari buruz daukagun ezagutza hezkuntza-praktikari aplikatzean.

Honako printzipio psikopedagogiko hauek dira gure H2ko irakaskuntza-metodologiaren oinarria osatzen dutenak:

- Hizkuntza bat, ikasiko bada, erabili egin behar da, eta hizkuntza baten erabilerak aurrebaldintza bat du: komunikazio beharra sortzea, intenzioen garapena alegia; esate baterako, norbaiti zerbait esan nahi izatea.
- Bigarren hizkuntza bat ikasteko, intenzioen garapen horrek bigarren hizkuntzan



gertatu behar du. Eskolako giroan, soilik hizkuntza horretan mintzatuko diren eta hurrei ere hizkuntza hori produzitzea exijituko dieten irakasleak behar dituzte ikasleak.


- 3.- Hizkuntza baten ezagutza egoera naturalean lortzeko ematen diren garapen-faseak dira bigarren hizkuntzaren irakaskuntzako zailtasun-mailak planifikatzeko adierazlerik onenak.

3.- PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Bistan dago eskola bezalako testuinguru ez-natural batean hizkuntza baten *benetako* erabilera eta, beraz, bere ikasketak sustatzeko, teknika espezifikoak garatu beharko direla, aipatu planteamendu teoriko linguistiko eta soziolinguistikoa oinarrituta. Gure metodologian garatu dugun teknika, "irakaskuntza-formatuak" bezala dei genitzakeen ipuin antzeztuetan oinarritzen da. "Formatu" hitza, hizkuntza modu naturalean ikasteko estudioetatik dator, eta pertsona helduaren eta haurraren artean konpartitutako esperientzi errutina bat bezala definitzen da (Bruner, 1986). Esate baterako, amak eta haurrak konpartitutako esperientziak, bainu, otorduak, etab.; hau da, haurrak mundua ezagutzeko eta hitz egiten ikasteko oinarri diren esperientziak.

Gure metodo didaktikoa, beraz, irakasleak eta haurrak konpartitutako "formatuetan" oinarritzen da. Bi formatu mota bereizten ditugu. Ikasgelako bizitzan badira berezko "formatuak": ikasgelako bizitzan etengabe errepikatu eta ordena jakin batean gertatzen diren errutinak dira; esate baterako, klasea hasi eta bukatzea, taldeak jardueretarako antolatzea, baimena eskatzea, etab. Honekin batera beste formatu mota bat dago: formatu narratiboa.

Hau ipuin antzeztua da. Ipuina gertakari-segida



Ikastolen Elkarte

bat da, non aurreko gertakizunak hurrengoari buruzko inferentziak eta predikzioak egiteko bidea ematen duen, eta non gertakari-segida azken gertakizun garrantzitsu batekin bukatzen den (Britton eta Pellegrini, 1990). "Formatu narratiboa" oinarritzen da gure proposamen didaktikoa Lehen Hezkuntzan, 4 urtetik hasi eta 12 urte bitarteko haurren gaitasun psikokognitibo eta linguistikoko maila desberdinei erantzuten dieten garapen dibertsifikatuekin.

Bigarren hizkuntza ikasteko lehen fasean, 4 urtetik 6ra bitartekoan —hauxe baita gure artikuluko honetan gehien interesatzen zaiguna—, aipatutako formatu edo/eta ipuin antzeztua da ikasgelako lanaren oinarritzko elementua. Ipuinak garatzeko, haurren eguneroko bizitzarekin erlacionatutako istorio arruntak asmatzen dira, horrela, haien bizitzako esperientziatik abiatuta, aurretiazko inferentzia eta auresuposamenduetan oinarritutako komunikatzeko intentzio pertsonalak martxan jar ditzaten.

Istorioak garatzeko modua antzerkia da, honek istorioa entzute hutsarekin geratu ordez, zuzenean **bizitzeko** bidea ematen duelako. Eta proposatzen dugun antzeztu-modua talde osoko dramatizazioa da, haur guztiak pertsonaia guztien paperak hartzen dituztelarik, horrela ipuinaren barruko komunikazio-prozesuak gelan garatzeko bidea emanez. Antzerki-gidoi bat egiten da, arreta berezia jarriz espazioen banaketan, keinuetan, mimikan eta ipuinaren egitura logikoa. Izan ere, horiek zentzuaren adierazle argiak baitira, haurraren aurretiazko esperientziarekin batera. Hasieran, adierazle horien bitartez komunikatzen da esanahia, eta geroago pauso batean bakarrik hitzaren bidez bigarren hizkuntzan.

Behin istorioa antzerkiaren bitartez "bizi" ondoren, beste baliabide eta jarduera-sail bat sartzen da, sartutako elementu linguistikoen esanahia finkatu eta zehazteko. Horrela, esate baterako, istorio bakoitzarentzako abesti bat daukagu, istorio horien hormirudiak eta figurak, istorioa banaka erreproduzitzeko fitxak, hizkuntz joko desberdinetarako material osagarriak, etab.

Aste bakoitzeko denbora eta saioaldien kopuruari dagokienez, astean 2,30 orduko denbora sartzea proposatuko genuke Haur-Hezkuntzako etaparako, eguneroko ordu-erdiko saiotan banatuta.

4.- MATERIALEN ELABORAZIOA

Material propioak prestatzea derrigorrezko lana izaten da proiektu berritzaile bat bideratu nahi denean, merkatuan dauden materialak ezin direlako moldatu ez planteamendu teoriko-metodologikora, ez ingelesaren irakaskuntza goiztiarretara, eta ezta planifikatutako ikasketaren erritmo eta aurreramarxtara ere.

1991ean hasi ginenetik, 4-6 urte tartean ari gara lanean "Ready for a Story" materialetan oinarrituta, *Josep María Artigalen* formazio eta gainbegiratupean. 1992tik 1995era bitartean Erromako "La Sapienza" Unibertsitatea, Birminghamgo Unibertsitatea, Amsterdamgo Gemeentelijk Institut eta E.H.U.ko Hizkuntzen Pedagogi Institutuarekin batera lan egin dugu irakasleak prestatu eta 8 urte arteko umeentzako materialak ("Hocus & Lotus") sortzeko proiektu komun batean, Erromako Unibertsitateko *Traute Taeschner* irakasle

anderearen koordinaziopean. Eta 96tik aurrera, berriz, lehen-go "bazkide" berek jarraitzen dugu 8 eta 12 urte arteko adinetarako material kurrikularrak (8-10 "Story Projects" eta 10-12 "Explorer Projects") sortzen, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko Xabier Garagorri, Itziar Elorza eta Diana Lindsay-ren koordinaziopean. Proiektu hauek Europako Komunitateak subentzionatzen ditu, bere Socrates-Lingua programaren bitartez, bai eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ere, guztira gastuen erdia inguru estaliz.

5.- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Irakasleek gauza izan behar dute, ez bakarrik ingelesez normal-normal egiteko, baita ikasleentzat beti esanguratsu gertatzeko behar duen moduan egiteko ere. Esan nahi da, irakasle hauek, irakatsi beharreko hizkuntzan adituak izateaz gain, ezagutza teoriko eta metodologiko multzo baten jabe izan behar dutela, horiekin hizkuntza berria erabiltzera motibatuko duten testuinguruak sortzeko. Eta horrexegatik, hain zuzen, proiektu honetan konprometituak dauden irakasleen prestakuntza teoriko eta metodologikoko prozesu etengabe bat egitea proposatzen da.

Guk planteatzen dugun prestakuntza-prozesua hiru zutaberen inguruan antolatzen da:

a) Informazio teorikoa eta didaktikoa:

Honen helburua da, irakasleari gure proposamenaren oinarrian dagoen informazio teorikoa (soziolinguistikoa, psikolinguistikoa, epistemologikoa, etab.) ematea, eta baita material kurrikularrak egokiro erabiltzen jakiteko behar diren teknika edo prozedura didaktiko eta metodologikoa (drama, espazioaren antolamendua, baliabide informatikoen erabilera, etab.) irakastea ere.

Prestakuntza-modu hau ikasturtearen hasieran egiten da funtsean, horretarako prestakuntzako jardunaldi kolektiboaren formatua erabiliz.

b) Praktikari buruzko gogoeta:

Praktikari buruzko gogoeta, irakasleen esku jartzen diren material kurrikularretatik abiatuz egiten da. Material hauen aplikazioa ez da modu pasibo eta akritiko batean egiten, baizik eta bakoitzaren praktika gainerakoekin praktikaekin kontrastatu ahal izateko abiapuntu bezala erabiltzen dira. Jardunaldi horiek balio izaten dute, halaber, materialen ebaluazioa kontrastatu eta hobetzeko proposamenak egiteko ere.

Prestakuntza-modu hau ikasturtean zehar egiten da, hilean behingo aldizkotasunarekin. Formatuari dagokionez, berriz, mintegiarena hartzen du.

c) Lanaren segimendua ikasgeletan:

Proiektuaren koordinatzaile pedagogikoak, proiektuan inplikaturik dauden irakasleen ikasgeletara joaten dira aldizka-aldizka, bai, praktika konkretuak ikusteko, bai aholku emateko asmoz eta, behar izanez gero, irakasle lanak egiteko ere, horrela irakasleentzat eredu posible bat

izateko. Segimenduko lan honetan, saio batzuk bideoan grabatzen dira, gero noizbehinka, taldean aztertu eta ebaluatzen xedearrekin.

6.- IKASLEEN EMAITZEN EBALUAZIOA

Ebaluazioaren objektibotasuna gordetzeko, kanpo-ebaluazio bat egiten da. Hau da, talde ebaluatzailea osatzen duten pertsonak, proiektuaren barruan koordinazio pedagogiko edo antolamenduko eginkizunak dituztenez bestelakoak dira. Proiektuaren kanpo-ebaluazioa Euskal Unibertsitate Publikoko Hizkuntzen Pedagogi Institutuak (HIZPEIk) egiten du.

Eta proiektua ebaluatzen hipotesiak, berriz, hauexek dira: ingelesean oinarritako komunikazio gaitasuna garatuko dela, ez diola euskarari kalterik egingo, ez jarreraren edo identifikazio-graduan, eta ezta gaitasun-mailan ere, eta orobat atzerriko hizkuntza bat adin goiztiarrean sartzeak ez diola kalterik egingo gaztelaniazko gaitasunari eta ezta gaitasun intelektualen garapenari ere.

Hipotesi horiek egiaztatzen, alde batetik, 76 ikasleko lagin bat hautatu da esperientziarekin 1991-92an hasi ziren 8 ikastetxeen artean (Taldea esperimental). Bestetik, talde esperimentalaren antzeko ezaugarriak dituzten baina proiektuan parte hartzen ez duten 7 ikastetxetako 90 ikasleko beste lagin bat (Kontrol-taldea).

Eta emaitzei dagokienez, esan dezakegu, oraingoz behintzat, oro har betetzen ari direla ingelesa adin goiztiarrean sartzeak euskara eta gaztelaniazko gaitasunei, - hala nola gaitasun intelektualei, - ez diola kalterik egiten planteatutako hipotesiak. Alabaina, ingeleseko emaitzak kontrastatzeko aukerarik ez da egon oraindik, kontrol-talderen ezean. Ez dago zalantzarik proiektuaren 8. urtean (1998-99an), hau da, esperientzia 4 urte zituztela 1991-92an hasi zuten ikasleak Oinarritako Hezkuntzako 6.era iristen direnean, askoz ere esanguratsua izango dela planteatutako hipotesiak balidatzeko. Nahiz eta, jakina, behin betiko ebaluazioa ezingo den egin proiektua bukatzen den arte, hots, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2002-03 urtean bukatzen duten arte.

□ KONKLUSIOA

Ingelesa atzerriko hizkuntza bezala 4 urtetik aurrera sartzeko proiektuari bere osoan hartuta egin zaion balorazio oso positiboa izan da, oraingoz. Erronka handia da, benetan, eta hala proiektuan inplikaturik ikastetxe eta ikasleei, nola ikasleek berek lortutako fruituei dagozkien emaitzak, gogobetekoak direla esan behar da.

Gurea bezalako proiektu berriztatzaile baten alderdi garrantzari eta erabakigarrietako bat gertatzen ari dena, material kurrikular propioak sortu eta esperimendatzea da, gure testuingurura egokituta. Materialen elaborazioa eta jarraipena, horien egile bezala proiektuan inplikaturik antolatzaile eta irakasleek parte hartuz eta gero irakasleen aldetik esperimendatu eta balidatuz, irakasleen formakuntzarako bide ezinhobea gertatzen ari da eta giza kapital garrantzizko bat eratzeko bidea ematen ari da.

Eleaniztasun goiztiarra (4-6 urte) irakaste baten ikuspegitik

Beatriz Gereka
Txantxiku Ikastola (Oñati)

HISTORIA APUR BAT

1990/91. ikasturtean Ikastolen Elkarteak HAURT~~X~~O~~A~~ proiektuan (Haur Hezkuntzako metodologia globalizatua) sartuta geunden zortzi ikastolak bilera batera deitu gintuen, Eleaniztasun Goiztiarrari buruz hitz egiteko, hain zuzen ere.

Ikastolen Elkarteak Haur Hezkuntzan eleaniztasunaren esperientzia bideratzeko aukeratu zuen aditua aurkeztu zigun: Josep M^a Artigal (psikolinguista kataluniarra). Harek bere proiektua azaldu zigun, eta benetan oso interesgarria iruditu zitzaizgun.

Ondoren, ikastetxe bakoitzean eztabaidatzeko ordua iritsi zen eta proiektu berri honetan sartzeari euskararen kalterako gerta zitekeelako irakaslegoa nahiko kezkatu agertu zen. Hori zela eta, Ikastolen Elkarteko antolatzaileek zenbait azalpen eman ziguten, eta horren ondorioz, Txantxiku Ikastolak proiektuan sartzeko apustua egin zuen. 4 urteko haurren gurasoei gai honen inguruko inkesta bidali zitzaien eta ia

gehienek ingelesa ematea oso positibotzat

jo zuten. Horrela, 1991/92. ikasturtean hasi ginen 4 urteko haurrei ingelesa irakasten.

Josep M^a Artigalen iritziz, haurren adina kontuan izanik, saio asko eta laburrak eskaintzea zen egokiena, eta, ondorioz, astean 30 minututako 4 saio ematea erabaki zen, era horretan haurrak ingelesarekin ia aste osoan kontaktoan egon zitezten.

Ikasturtearen hasieran, Ikastolen Elkarteko Ebaluazio Taldekoek, gela bakoitzeko 5 haurrei, euskara, gaztelania, eta gaitasun orokorrak neurtzeko froga bat pasatu zieten. Ikasturtearen bukaeran, ingelesa neurtzeko froga pasa zitzaienten, handik aurrera urtez urte ikasturte bukaeran pasatuko zelarik. Honez gain, proiektuan sarturik ez zeuden ikastetxeetako haurrez osaturiko Kontrol Taldea osatu zen. Haur horiei ere, froga berberak pasatu zitzaizkien (ingelesa kenduta, noski).

Ikasle bat bere pertsonaia pegatzen eta hari dagokion esaldia esaten. Txantxiku Ikastola

Hiru urte ondoren berriro pasatu ziren haserako froga-mota guztiak eta Kontrol Taldeko haurrekin konparatu ondoren, proiektuan sartuta zeuden Ikastoletako haurren euskara maila antzekoa eta zenbait arlotan hobea zela ikusi ahal izan zen. Beraz, Artigalek aurrez esandakoa egiaztatu zen, hau da, Eleaniztasun Goiztiarrak haurraren ama hizkuntzari mesede egiten diola, hizkuntz gaitasun orokorra aberastu egiten baitu.

HASERAKO KONTU BATZUK

Nire esperientzia irakasle bezala nahiko gogorra izan zen lehenengo urtean, errekurtsio gutxi izateaz gain, erronka oso handia zelako. Bestalde euskaraz hitzik ere ezin nuen egin, Ingalaterratik etorritako irakasle bat nintzela suposatzen baitzen. Haurren hizkuntza ulertzen nuen baina ez hitz egiten. Lehenengo ikasturtean gertatu zitzaidan anekdota izan daiteke aipatutakoaren adierazgarri: lehengusu baten semeari ingelesa ematen nion eta igandeetan bere etxera joaten nintzenean euskaraz hitz egiten nuen. Behin haur honek zera esan zion amari: "Ama, ingeleseko nire irakaslea Beatriz bezalakoa da, baina ez da bera, gure irakasleak ingelesez hitz egiten baitu". Ikasturte bukaeran, bere etxera joaten zena eta bere ingeleseko irakaslea pertsona bera zela konturatu zen.

Lehendabiziko ikasturte horretan haurren ama-hizkuntza ezin erabil ahal izatea oso gogorra gertatu zitzaidan. Poliki-poliki, egoerak azaltzeko, beste errekurtsio asko (bereziki keinuak eta gorputza erabiliz) ikasi nuen, alegia, pittin bat pailazoarena egiten. Horren adibidetzat, pasadizo hau: Proiektuko lankide batek komentatzen zidan klasera sartzen zen bakoitzean bere gelako ikasle batek esaten omen zuela "begira badator ingelesekoa, badator berriro ere pailazoarena egitera, ez daki ezta euskaraz hitz egiten ere".

Ikasleentzat ere gogorra izan zen egoera berri hau, irakaslea aldatzeaz gain, ingelesera egokitu beharra baitzuten.

Lehenengo ikasturtearen bukaeran ia guraso guztiekin egon nintzen (banaka) eta hauen esanetan, haurrak ingelesarekin oso gustora zeuden, ondo pasatzen zuten. Niretzat, irakasle bezala, hori entzutea oso motibagarria izan zen. Behin, ama batek kontatu zidan, ikasturtea hasi berria zela bere semea oso haserre joan zela etxera eta galdetu ziola: "Zer gertatzen zaizu?" eta haurrak: "Amatxo, ingeleseko irakaslearekin oso haserre nago, ez dit euskaraz hitz egiten eta nik ez diot tutik ere ulertzen". Orduan amak esan zion. "Euskarako gelan zaudenean euskaraz hitz egiten dizu andereñoak, ezta? Ba, ingeleseko andereñoak zuk ikasteko ingelesez hitz egiten dizu",

"Ah!" (haurrak). Eta kitto, handik aurrera haurra gustora egoten zen gelan eta parte hartzen hasi zen. Beste guraso batzuk esan zidaten, heuren seme-alabek ingelesez zekiten apurra beraiekin ez zutela egiten, baina bai ordea panpinarekin edo pelutxearekin edota lagunekin jolasean.

METODOLOGIA

Josep M^a Artigalen metodologia antzeztutako ipuinetan oinarritzen da, haurrentzat erakargarriak diren ipuinez baliatzen da. Berak haurren bizipenetan oinarritutako ipuinak idazten ditu eta horregatik oso esanguratsuak dira haurrentzat, ipuinen barnean erraz murgiltzen dira.

Ingelesa ipuinetan eta gelako ohituretan oinarriturik lantzen da eta haurrek horietan ikasitakoa poliki-poliki beste testuinguru batzuetan erabiltzen hasten dira. Adibidez, ipuin batean, aitak alaba ohera eramaten du eta bapbatean alabatxoa esnatu eta aitari ura eskatzen dio: "daddy, please, water" eskatzen dio. Ipuinean "daddy, please, water" egitura lantzen da eta gero haurrek egitura hori barneratzen dutenean beste testuinguruetan erabiltzen hasten dira: "andereño, please, water", esate baterako.

Metodologia hau aurrera eramateko honako jarduera mota nagusiak egiten ditugu:

- Ipuina taldean antzeztea.
- Ipuineko abestia, bertako hizkuntza parte handi batean jasoz.
- Ipuina taldean errepikatzea, hormirudi bat eta irudi txikiak erabiliz.
- Ipuina banaka kontatzea eta pertsonalki jokatzeko eszenatoki txiki batekin eta irudi txiki indibidualekin.
- Ipuinean azaltzen diren elkarrizketen parte bat errepikatzea lan-fitxa eta hainbat eskulanen bitartez.
- Hiztegi-jokoak, ipuineko oinarritzko hiztegia gogoratzeko bidea ematen duten txartelekin.
- Abestiak, errimak, poemak, ingelesezko haur-joku tradizionalak, ipuinaren gaiarekin lotutakoak, edo eta giroketarako baliogarriak direnak.

Ikus dezagun nola gertatzen diren jarduera hauek gelako bizitzan:

Warming up - Girotzea

Egunero, saio hasieran, haurrak ingelesaren munduan murgildu daitezten egiten dugun bost bat minutuko ekin-tza da. Ekintza honetan joku edo abesti laburrak erabiltzen ditugu. Adibidez:

- "Two little dicky birds". Keinuen bidez abestu.
- "Blindfolded Where are you?". Begiak estalita
- "Who's missing". Izarez estalita.



"Little rabbit" ipuinaren hormirudia bi zati garrantzitsuetan banatuta. Txantxiku Ikastola

"Count up to 10". Zenbakiak ahoz landu , ixilik eta ozenki

Etab. luze bat.

Hasieran, material ezagatik, kosta egin zitzaigun ekintza hau aurrera eramatea, nahiz eta beharrezkoa ikusi. Baina bost urte hauetan, esperientzia gehitu ahala, errekurtsuak bilatzea errezagoa izan da.

Ready for a story! - Ipuina antzeztea

Ipuinak ez dira kontatu egiten, antzeztu baizik. Ipuin bakoitza lantzeko gutxi gora-behera hilabete behar da. Lehenengo hiru edo lau saioetan ipuina denon artean antzezten dugu, irakasleak esan eta haurrek errepikatuz. Laister hasten dira haurrak irakaslea aurreratzen eta ondoren taldeka edo/eta bakarka paperak banatzen zaizkie haiek bere kabuz antzez dezaten. Ipuinaren egoera eta hari itsatsitako hizkuntza, antzezpeneren bitartez , ondo finkatuta egon arte ez dute inongo irudirik ikusten.

Mural - Hormirudia

Murala egitearen helburua antzeztuz landu dituzten

esaldi garrantzitsuenak errepikatzea da.

Hormirudi batean ipuinaren bi zati garrantzitsuenak marrazten dira. Saio batean irakasleak ipuinaren lehenengo zatia kontatzen du, eta pertsonaia hormirudian pegatzen du, hari dagokion esaldia esanez. Ondoren bi edo hiru haur ateratzen ditu hormirudi aurrera eta irakasleak egin duena egiten dute, denok konturatu daitezzen zer egin behar duten. Batzutan, irakasleak nahita itsasten du pertsonaia toki desegokian eta "Is little rabbit out?" bezelako galderak eginez haurrak badaki irudia non jarri behar duen. Argazkietan "Little rabbit" ipuinaren eszenategia ikus daiteke adibide gisara.

Ondoren, mahaian eserita , bakoitzak bere pertsonaia koloreztatu eta mozten du (haurrek galdetzen dute "colour it and cut it out, andereño?"). Batzuetan ez dago denborarik saio batean dena bukatzeko eta orduan hurrengo saiorako uzten dugu.

Hurrengo saioan irakasleak berriro kontatzen du ipuinaren lehenengo zatia (normalean heurok lagunduta), eta hormirudi aurrera ateratzen ditu, (banaka edo binaka) pertsonaia bertan pegatu eta bere esaldia esan dezaten.

Songs - Abestiak

Abestiak ipuinaren egoera eta hizkuntza aurkezteko beste era bat dira. Erakargarriak egiten zaizkie normalean, eta, ahal dela, abesterakoan dantza egiten dugu. Abesti batzuk, berriz, "erlajazio" saioak egiteko erabiltzen ditugu.

Scenary -Eszenategia

Ipuina gertatzen deneko tokia, eszenategia deitzen diogun irudi-orria, arbelean eraunsten da eta, irakasleak, ipuinaren pertsonaien irudiak txotxongilo gisara erabiliz eszenatokian zehar mugitu ahala, ipuina kontatzen du. Haurrak adi-adi, aho zabalik, egoten dira.

Ipuin batzuk oso aproposak dira haur bakoitzak bere eszenategiak egiteko, adibidez "Little rabbit". Bakoitzak bere eszenatoki txikia eta pertsonaien iruditxoak egin ondoren denon artean gelan kontatzen dugu, bakoitzak bere eszenategia aurrean duela eta gero etxera eramaten dute beraien gurasoei ingelesez kontatzeko. Nik ipuin horren kontaketa ikusteko aukera izan dut ikasle baten amak bideoan grabatu zuelako, eta benetan oso ongi kontatu zuen.

Flashcards - txartelak

Ipuinean agertzen diren pertsonaia guztiak txarteletan (flashcards) ateratzen ditugu hiztegia lantzeko; fotokopian dituzue "Little rabbit" ipuinaren pertsonaiak. Jokuo asko egiten ditugu txartelen bitartez, adibidez "photographer" izenekoa (argazkilaria).

Arbelean ipintzen ditut banaka "flashcard"ak (normalean 5 edo 6) eta "one potato, two potatoes....." donadona jokoaren pareko zozketa egin ondoren haur bat ataritzen dut arbelera, bera da "the photographer" eta argazkiak ateratzen hasten da txartel bakoitzari dagokion izena esanez: "clic-clac, little rabbit (untxitxo); clic-clac, dog (txakurra).....".

Argazkiak atera ondoren gelatik kanpora doan bitartean, irakasleak edo ikasle batek ahozpeztan jartzen ditu 2 argazki. Ondoren, kanpoan dagoenari sartzeko deia egiten diote "Mikel, come in" esanez. Behin ikaslea barrurata, irakasleak lehen aipatutako 5, 6 animalia horietatik zeintzuk ez diren agertzen galdetzen dio. Nahiz eta ikasle horrek ongi asmatu, irakasleak minutu pare batean suspentsea mantentzen du honelakoak esanez "let's see, let's see (eta txartelei oso poliki buelta emanez) yyyes! Very good" (ea ba, ikus dezagun Baaai! ederto).

Ikasle horrek asmatuko ez balu, gainontzeko ikasle guztiek gogoz laguntzen diote.

Cut out and glue on - Moztu eta pegatzea.

Ipuinaren hizkuntza berreskuratzeko fitxak ere erabiltzen ditugu. Adibidez, "cut out and glue on" modukoak. Ipuinaren 3 pasarte agertzen dituen 3 irudiko orri bat eskaintzen diegu hurrei eta 3 irudi horietan pegatzeko beste hainbeste pertsonaia.

Saio bakoitzean pasarte edo irudi bat denon artean kontatu ondoren, ipuinaren zati horri dagokion pertsonaia behar den tokian itsatsi behar du ikasleak dagokion esaldia esanez.

Games - Jokuk.

Hurrek bere kabuz ipuinen elkarrizketen zati txikiak antzez ditzaten jolasak egiten ditugu. "Little rabbit" -en kasuan adibidez honako hau:

Haurrak lurrean borobilean eserita daudelarik "donadona" egin (one potato, two potatoes.....) eta little rabbit izango den ikasle bat aukeratu da.

Horrek borobileko kanpo aldetik 1etik 5era kontatzen duen bitartean, ikaskide guztiak ikutzen ditu, halako batean, horietako baten aurrean, gelditu arte. Orduan, irakasleak, zutik jarritako ikasle horri aukeran ematen dio izan nahi duen animalia (txakurra, txoria, sugea). Horrela "little rabbit" eta animalia hori, biak arrez aurre jarrita hitz egiten dute, ipuinaren elkarrizketatxo errepikatuz.

Beste batzuk

Orain arte aipatutakoak dira gure baliabide nagusiak. Ipuinen ezaugarrien arabera beste baliabide batzuk ere erabiltzen ditugu, hala nola, kareta egin eta antzeztu, ipuin liburuxkak egin, etab.

ONDORIOZ




Nik uste dut oso lan polita dela eta apurka-apurka emaitza onak ikusten ari garela. Lehenengo urtean barneratu dutena hurrengo ikasturtean, eta batzuk lehenago, ahoz azaltzen hasten dira eta guretzat irakasle bezala ez dago hori baino motibazio hoberik aurrera jarraitzeko, nahiz eta askotan ahotsik gabe gelditu sugearena edo "monster"arena egiten.

Tamaina honetako proiektuek badituzte noski beren alderdi kritikoak eta zailtasunak ere gauzatzeko orduan. Orain artekoan topo egin dugun arazo edo kezkarik larrienak antolamendu (ordutegien banaketa, pertsonalaren mugikortasuna...) eta ekonomi mailakoak izan dira.

Proiektua gogoz doa aurrera eta erronka berriak sortzen zaizkigu etengabe. Momentu honetan, 4 urterekin hasitako ikasle horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren atarian daudelarik, haien garapenaren jarraipena ziurtatzeko diseinu egokia bideratzean dago gure lan esparru nagusia.



- "Little rabbit" ipuinaren haurren eszenategia.
 - "Little rabbit" ipuinaren eszenategirako pertsonaiak, moztu eta eszenategian mugitzeko.



- "Little rabbit" ipuinaren "Cut out and glue on" moduko fitxa, ipuinaren hiru egoera nagusi adieraziz.
 - Fitxan itsasteko pertsonaiak, irakasleak moztu eta haurren artean banatzeko.

Haur-hezkuntzan ingeleza irakastea



Arrasateko Umezaintza

Sara Martique de Lara
Arrasateko AHIZKE/CIM

AHIZKE/CIMen hamar urte baino gehiago daramatzagu ikastetxeetan ingeleza irakasteko proiektuak diseinatzen. Proiektu hauek askok kanpoko hizkuntza lau urtetik aurrera lantzen dute. Une honetan, besteak beste, garrantzi handiko bi Proiektu ditugu esku artean, hala nola, HEZIBIDEn Proiektu Eleanitza (4 urtetik 17ra) eta Hezkuntza Sailaren Proiektu Eleanitza (4 urtetik 8ra bitarteko haurrentzat).

HEZIBIDEn Proiektuan lanean ari direnak Debaren Goi Bailerako ikastola hauek dira: ALMEN, SAN FRANTZISKO XABIER, SAN VIATOR ETA UME ZAINZA. Proiektu Eleanitzean, berriz, Euskal Autonomi Elkarteko 13 ikastetxe publiko daude.

Ingelesa adin goiztiarretan irakastea, Ikastetxearen Proiektuaren barruan sartzea edo ikasleek, ikastetxeek eta curriculumak haur-hezkuntzan kanpoko hizkuntzak irakasteko proiektu bati ekiteko bete behar dituzten baldintzak zalantzan jartzea bidezkoa iruditzen zaidan arren, lerro hauek idaztean dudan asmoa bestelakoa da.

Artikulu honetan, HAUR Hezkuntzako Etopan kanpoko hizkuntza bat sartzerakoan nire iritziz kontuan hartzea komeni den alderdietako bat komentatu nahi dut batik bat.

Ondoren garatuko ditudan puntuak ez daude duten garrantziaren arabera aurkeztuta. Nire asmoa ez da zeintzuk diren garrantzitsuenak eta zeintzuk ez esatea, baizik

eta horiei buruzko zerbait komentatzea. Une oro nagusi-ki B eta D ereduak dituzten ikastetxeetan kanpoko hizkuntza, batik bat ingelesa, sartzeaz hitz egiten ari gara. Kanpoko hizkuntza astean hiruzpalau aldiz ordu erdiko saioetan sartzen da.

Espazio ezberdinen definizioa eta erabilera: Espazioa elementu oso garrantzitsua da ETAPA honetan eta bereziki kanpoko hizkuntza sartzean erreferentzia gisa zaie baliagarri. Interesgarria da espazio osoa jardueramota ezberdinak adierazten dituzten azpiespazioetan banatzea, hala nola, ipuinak kontatzen diren gunea, eskulanak egiten diren tokia, agurrei zuzenduriko gunea eta abar.

Espazioa mugatzeak ulertzen laguntzen die; izan ere, gune zehatz bat erabiltzeak automatikoki edozein unetan beraiengandik zer espero den esaten baitie.

Haurren parte hartzeko berezko joera, hizkuntzan eta hizkuntzatik kanpoko alderdian haurrek beren ikaskuntzan ikusle hutsak baino gehiago direla senti dezaten erabili behar da. Egoerak bilatu behar dira haurrek ingeleseko saioan parte har dezaten; hizkuntza horretan ez hitz egitea edo hasiera batean ez ulertzea ez dira arrazoiak partehartzerik ez izateko edo partehartze pasiborako.

Famili egoerak erabiltzea: Alderdi hau batez ere ipuinak kontatzerakoan hartzen da kontuan. Ipuin batean ezaguna zaien egoera bat aurkeztean, automatikoki haurrek kontua ingelesez ulertzen ari direla sinets dezaten eta, beraz, uler dezaten lortuko dugu. Ezaguna gertatzen zaien eta batik bat bizi izan duten zerbaitekin lan egiteak izugarri errazten du ulermena eta aurretik jasotako esperientziarekin lotzea.

Imitatze eta esperimendatzeko joera handia

Edozein jarduerak edo zerbait esateak sortzen dizkien sentipenek -ohikoaren oso ezberdina bada ere- emaitza hobeak lortzen lagunduko die. Horrela bada, hainbat eta hainbat kantu, errima eta abar irakatsi ahal diegu, horrela, ulertzeko beharrik gabe, hizkuntzaren ahoskera barneratzen laguntzeko. Horrek, edozein unetan hainbat kantu eta errima kantatu edo erreztatatu ahal izango dituztenez, aurreratzen ari direla sentiaraziko die.

Errepikatzea/Errepasoa. Izugarri gozatzen dute landutako ipuinak nahiz abesti, errima eta jolasak berriz

errepikatu edo entzunez gero. Horrek, gehiegi aldatu barik landu denari berriro heltzeko aukera eskaintzen du; izan ere, lehendik emandakoa errepikatzea atsegin izateaz gain, aurreratzen, ikasten, ari diren sententziak sortzen die. Materiala ezaguna izatea lagungarri gertatzen zaie eta dakitela erakutsi nahi dute, gozatu egiten dute horrela.

Ipuinak eta abar errepikatze hainbat jarduera garatu ditugu. Gehien erabiltzen ari garen jardueretako bat "booklets"en erabilera da. Horietan haurrek landu den ipuin edo kantari buruzko liburuska egiten dute eta, zerbait ezberdina egiteaz gain, aitzakia da ipuin eta abestiak zenbait aldiz errepikatze, bai ikastetxean bai etxean.

Musika eta mugimendua hizkuntza ikasteko elementu gisa erabiltzea. Erabiltzen ditugun ipuin guztiek kantu bat edo bi dituzte, horien euskarriztat balio dutenak. Dantzatzea edo ipuinaren-zati bat musikaz eta erritmo jakin batez ikastea oso lagungarri gertatzen zaie. Horregatik, ikasten duten hizkuntzaren atalik handienak musika eta mugimendu-euskarria izan dezan ahalegintzen gara.

Eskulanen erabilera. Ikasgelan eskulanak egiteak aukera ugari eskaintzen digu beste era batean zaila izango litzatekeen hizkuntza sortzeko, esate baterako, lanak banatzea, material jakin bat erabilia haurrak taldetan banatzea, lanak jasotzea, lan bakoitza norena den galde- tzea, haur batzuen lana azaltzeko eta txalotzeko saioak izatea eta abar.

Errutinak erabiltzea. Alderdi hori funtsezkoa da Etapa honetan; espazioarekin gertatzen den bezala, honek ere erreferentzetat balio die. Ez dira aspertzen errepikatuz, aitzitik ondo pasatzen dute eta estimulagarria da. Beraz, hizkuntza sartzeko eta irakasleen eta ikasleen oinarritzko jarduerak-arauak ezartzeko aprobeitza daiteke; adibidez, agurtzeko jarduerak izatea beti errutina da eta agur egitea beste bat eta abar. Errutina horiek garrantzitsuak dira, besteak beste, hizkuntzaren erabilera eskatzen dutelako; beraz, egoera ezaguna da, zentzua du haurrentzat eta hizkuntza jakin bat behar da ekintzok burutzeko.

Zentzua izan dezaten Hizkuntz erabilera behar duten egoerak sortzea. Prestatuta egon behar da une oro gertatzen denari etekina ateratzeko eta hizkuntza era naturalean erabiltzeko. Baina, era berean, hizkuntz erabilera jakinak eskatzen dituzten egoerak sortu behar dira.

Haurrak ikasgelatik irteteko binakako lerroan jartzeak, bikotea aukeratzeko hizkuntza erabitzea eragiten du. Hizkuntza erabilera hau naturala da: norbaiti lerroan zurekin jartzeko eskatu behar zaio. Beraz, kontua ez da egoera irrealak sortzea, ezta hizkuntza era artifizialean erabiltzea ere.

Azkenik, garrantzitsuenetarikoa iruditzen zaidan alderdietako bat **haurrei jarduera orokorrerako aukerak eskaintzea da**. Hau da, AUKERATZEN utzi behar diegu beti. Haurrek erabakiak hartzen hasiera-hasieratik ekin behar dute; erabaki horiek garrantzitsuak dira bate-tik burutu egiten direlako eta bestetik hizkuntzaren erabilera eskatzen dutelako. Esate baterako, zerbait margo-tzeko bi kolore eskainiz gero, bat aukeratu behar dute nahi duten arrazoiengatik: gehiago gustatzen zaielako, egokiena delako, lehengo kolorearekin ondo geratzea nahi dutelako... Bestalde, aukeratu duten kolorea esku-ratzeko kolore horren izena edo, bestela, gutxienez hori edo hura nahi dut esan behar dute. Edonola ere, aukeratzeko hizkuntza forma zehatz bat erabili behar da. Beste adibide bat: gero egingo den jarduera baterako zakur bat ebaki dezaten nahi badugu eta tamainak garrantzirik ez badu, zakur handi eta txiki bat eskainiko dizkiegu. Haurrek nahi duten zakurra, handia edo txikia, aukeratu beharko dute, baina, era berean, handia edo txikia eskatu beharrean aurkituko dira eta, beraz, hizkuntza forma jakin bat erabili beharko dute. Nire iritziz, era honetan lan egiteak autonomoagoak izaten laguntzen die, baita atzerriko hizkuntzaren saioetan ere. Sarritan pentsatzen da, hizkuntza ezagutzen ez dutenez, beren jarduerak gainerako saioetakoak baino askoz pasiboagoa izan behar duela eta, beraz, ikasleak irakasleen askoz menpeago egon behar duela.

Alderdi horiek eta artikulua labur honetan aipatu ez ditudan beste batzuk dira nire ustez, Haur Hezkuntzatik aurrera hirugarren hizkuntza sartzeko kontuan izan behar direnak.



EPSTEIN J.; RADIGUET CH. 1982
L'explorateur nu
éditions universitaires,

ERREFERENTZIAK:

Bennett, S. and Kell, J. (1989) : "A Good Start? Four Year Olds in Infant Schools Oxford": Basil Blackwell

Bruner, J. (1977): "The process of Education". Cambridge, Mass: Harvard University Press

Piaget, J. (1962): "Play, Dreams and Imitation in Childhood". London Routledge and Kegan Paul

Wells, G. (1987): "The meaning Makers: Children Learning Language and Using Language to Learn Sevenoaks": Hodder & Stoughton.

Whitebread, D. (1996): "Teaching and Learning in the Early Years" Routledge2

Irakaskuntza hirueleduneko proiektu-esperientzia

Maribel Valero

Eskibel ikastetxeko Zuzendari Teknikoa
Irakaskuntza Hirueledunaren Programaren koordinatzailea
Suitzako Irchel-eko Unibertsitatean
Biologi Zientzietan Lizentziatua

Donostiako Eskibel eta Erain eta Irungo Erain Txiki ikastetxeetan hizkuntz

irakaskuntza-ikaskuntzako proiektu handiguratsua burutzen ari gara 90/91ko ikasturteaz geroztik. Proiektu hori gaur egun Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan gauzatzen ari da.

Arrazoizkoa denez, proiektu hori pixkanaka-pixkanaka ezarri da ikastetxe horietan. Arrakasta izateko garrantzitsua izan da gurasoak kontzientzia izatea, bai hainbat hizkuntza jakiteak dakarren **aberastasun pertsonalaz** bai irakaskuntzari beste norabide bat emateko beharraz: argi eta garbi dago **Autonomi Elkarte elebiduneko** eta, aldi berean, mugarik ez duen **Europako** hiritarrak izateak gure Hezkuntza Proiektuaren norabidean erabateko eragina izan behar duela.

Sarritan hizkuntzak jakiteko beharra ikuspuntu "merkantilista" soiletik aztertzen da, bizitzarako oso eragingarriak direla arrazoituz edo hizkuntza bat jakiteak edo ez jakiteak lotzen edo banantzen duena baloratuta. **Hizkuntzen ikaskuntza**



hori baino gehiago da; izan ere, pertsonaren gaitasunik oinarritzkoenei, hala nola, **pentsemenduari eta komunikazioari**, eragiten baitie zuzenezuzenean.


Hezkuntza-proiektu serio guztietan bezala, bi urtetik aurrera edo baita lehenago ere **irakaskuntza hirueleduna** izateak interes pedagogiko handia du, baina egoki ezartzeak ikaslearen hizkuntz aberastasuna baino askoz gehiago dakar.

Hauxe da, hain zuzen ere, gure proiektuaren testuingurua. Lehen Hezkuntzatik irakaskuntza eleanitza jasotzen duten neska-mutikoen hizkuntza bakar bat ikasten dutenek baino hobeto garatzen dute bai adimena bai ahalmenak, nahiz eta beste batzuk ere ikasi.

Begi-bistakoa da gizarte kulturantza dela gurea, bertakoa eta unibertsa, sustraiak eta etorkizuna era harrigarrian lotzen dituenak. Aniztasun horren alderdi bat hizkuntzak dira, beharrezkoak baitira kultura ezberdinak ulertu eta bizitzeko.

Hizkuntzak ongi jakiteak eta horien kulturak ezagutzeak ikastetxe hauetan bultzatu nahi dugun jarrera positiboa, integratzailea, errespetuzkoa, tolerantzia eta partehartzailea ahalbidetzen du.

Teoria, bibliografia eta ikerketari buruzko erreferentzi puntuak oso zabalak dira. Aurkezten dizuegun esperientzian, gure Proiektu Hirueledunaren oinarria eta antolaketa eskematikoki aurkeztera mugatzen gara.



Eskibeltzastetxea



ikastetxean hizkuntzen **irakaskuntza goiztiarra** aplikatzen dugu; izan ere, **Neurosikologiako** ondorengo ezagutzetan oinarritu ginelako "lehen bait lehen" hastera animatu ginen:

- Burmuinaren eta oro har Nerbio Sistemaren garapenari buruzko datuetan
- Herentziak eta inguruak ikaskuntzarako duen eraginari buruzko aurkikuntzetan
- Sentimen Aldiei buruzko teorian
- Bizitzaren lehen sei urteetan giza adimenak duen malgutasunean

Hizkuntzak irakasteko eta ikasteko gure ereduak komunikazioan (**komunikazio-ahalmena**) oinarritutako sistema defendatzen du eta ez arauak asimilatzean oinarriturikoa. Hortaz, ikasleak **hizkuntzaren erabilera aktiboan eta esanguratsuan** inplikatu behar du.

Ondorioz, aukeratzen dugun metodologia oso garrantzitsua izango da eta hori da, hain zuzen ere, ondoren azalduko duguna:

1. ESTIMULAZIO GOIZTIARRA

Bartzelonako hezkuntza-enpresa baten aholkularitza dugu **2 urtetik 8ra bitarteko Ikaskuntza Goiztiarrei buruzko programa** bat garatzeko. Programa horrek haurraren garapenaren alderdi guztiak hartzen ditu kontuan, bai antropologikoa bai pedagogikoa bai neurologikoa, eta



ahalmenak ahalik eta gehien **garatzera** zuzenduta dago.

Metodologia honek, ezarritako helburuak lortzeko, erabat programaturik ditu jarduera bakoitzaren intentsitatea, maiztasuna eta iraupena.

Metodologia hau erabili dugun sei urteotan ohartu garenez, ezagutza berriak lortzeko **nahia, irrika** eta **motibazioa** handitu egin da haurrengan. Horretaz ikastetxeko irakasleak ezezik, berehala jakinarazi zigitenez, haurren senideak ere ohartu dira.

Curriculumetik kanpo dauden jarduerak dira eta, beraz, ez zaie ebaluaziorik egin behar. Irakasleei dedikazio handia eskatzen dieten jarduerak dira, ohiko programazioez gain, Hezkuntza Goiztiarreko jardueren programazioa ere bete behar baita, eta horrek materiala sortzea eskatzen du, gehienak ez baitaude salgai.

Jarduera horiek egunero irakaskuntzan erabiltzen diren **hiru hizkuntzetan** egin daitezkeenez, horien erabilera bultzatzea, mintzaira aberastea eta ahozko ulermena erraztea lortuko dugu.

2. MURGILTZE-SISTEMA:

Ondorengo elementuak oso garrantzitsuak iruditzen zaizkigu:

- **Irakasle bakoitza hizkuntza batekin lotzea**, bai Haur Hezkuntzan bai Lehen Hezkuntzan.
- Ikasgelan eta edozein jarduera egiterakoan (jangelan,

atsedenetan, korridoreetan, aldageletan), irakaslea hizkuntza horretan zuzenduko da ikasleengana.

- Haurrek imitatuz ikasten dutenez, **ahozkatze-eredu ona** izateak garrantzi handia du.
- **Haur Hezkuntzako ikasgelak hizkuntzez apainduta egotea**, horrela irakaslea eta hizkuntzaren arteko lotura handiagoa izango da. Ikasleak dira ikasgelaz aldatzen direnak eta ez irakasleak.

3. IKASGELA ETA JARDUERAK HIZKUNTZAREN ARABERA BANATZEA:

Ikasteko ildo honen ardatza honako hau da: "**hizkuntza bat ikastea erabiltzen ikastea da**". Kontua ez da ingelesari edo euskarari eskaintako orduak gehitzea, baizik eta ingelesarekin edo euskararekin **ahalik eta harreman handiena izatea**, curriculumeko Arloak hizkuntza hori erabiltzeko Arlo gisa aprobetxatuta eta tesuinguru formalak eta ez-formalak dituzten jarduerak eginda. Horrekin, ikastetxean egunean zehar haurra mugitzen denen egoeretan hizkuntza erabiltzeko benetako aukera eskaini nahi da.

H A U R - H E Z K U N T Z A R E N B A N A K E T A

| JARDUERAK | INGELESA | EUSKARA | GAZTELANIA |
|------------------------|----------|----------|------------|
| PSIKOMOTRIZITATEA | X | | |
| GRAFOMOTRIZITATEA | | X | |
| MATEMATIKA | | | X |
| PLASTIKA | | X | |
| MUSIKA | X | | |
| IRAKURKETA-IDAZKETA | X | X | X |
| HEZKUNTZA | | | |
| GOIZTIARREKO JARDUERAK | X | X | X |
| GUZTIRA | 7,5 ordu | 7,5 ordu | 7,5 ordu |

L E H E N H E Z K U N T Z A R E N B A N A K E T A

| | GAIAK | ORDUAK |
|---------------------|---------------------|----------|
| GAZTELANIA | HIZKUNTZA | 3,75 |
| | MATEMATIKA | 3,75 |
| | ERLIJIOA | 1,50 |
| | GUZTIRA | 9,00 |
| | INGELESA | INGELESA |
| MUSIKA | | 1,50 |
| PSIKOMOTRIZITATEA | | 2,25 |
| GUZTIRA | | 6,75 |
| EUSKARA | | EUSKARA |
| | INGURUAREN EZAGUTZA | 2,25 |
| | PLASTIKA | 1,50 |
| | GUZTIRA | 6,75 |
| ATSEDENALDIA | | 2,50 |
| | GUZTIRA | 25,00 |

4. TESTUINGURU LUDIKA

Guk ikaskuntzarako derrigorrezkoa iruditzen zaigun **giro ludikoa eta atsegina** sortzen dugu eta horrela haurren motibazioa ziurtatzen da.

Jolasa erabiltzeko beste arrazoi batzuk:

1. **Irakaslea eta ikaslearen** artean lotura zuzena ezartzen da.
2. Beren ekintzei esker ikasten dute.
3. Beren **bizipen edo esperientziei** esker ikasten dute.
4. Beren **nortasuna** eraikitzeke balio dute:
 - taldeko jarduera egiten du,
 - baliagarri eta gai sentitzen dira,
 - etengabeko lotura dago errealitatearen eta irudimenaren artean.

Garrantzitsuak diren, baina horien garapenerako denbora asko beharko genukeen **beste elementu batzuk** hauek dira:

* **Musika**

Hizkuntza bera da musika-komunikazioan sartzen dena.

Gizakiaren mintzairaren sustraietara jotzen badugu, lehenengo **soinua**, gero **komunikazioa** eta azkenik **ahotsa** edo **hitza** aurkituko ditugu.

* Hizkuntza bakoitzak adierazten digun **kulturaren transmisioa**.

* Ikasleak **taldekatzeko sistema**.

* **Idazketa eta irakurketaren prozesua:**

Irakurri, hitz egin eta idaztea 2 urtetik aurrera hiru hizkuntzetan batera garatzen ditugun hiru prozesu dira. Horretarako, Haur Hezkuntzako irakasle-talde batek egindako metodoa erabiltzen da. Hizkuntzak ikasteko prozesua hazteko prozesu organikoaren parekoa da: ez dira lehenengo hankak eta gero besoak hazten, baizik eta gorputz osoa harmonikoki eta pixkanaka-pixkanaka hazten da.

Jakina denez, badaude **beste faktore batzuk ere** Ikastetxean Proiektu hau ezarri eta gauzatzeko **behar-beharrezkoak** direnak:

* Irakasle guztien **talde-lan koordinatua**: Proiektu Hirueleduna ez da proiektu soil bat. Aitzitik, informazteaz gain Ikastetxeari izaera ematen dio. Beharrezkoa da **norbera konbentzitzea** egotea: irakasle batek "bizi" duen heinean transmitituko du bere hizkuntza.

* **Irakasleen prestakuntza:**

- Proiektuaren oinarri zientifikoetan,
- Transmititu behar duen hizkuntzan. Ingeles eta Euskara emateko hizkuntz eskakizunak izatea.

* **Gurasoak Proiektuaren alde egotea:**

Eskolaz kanpo hiru hizkuntzetako edozein erabiltzea eta ikastea ahalik eta gehien bultzatzeko.

Ezarri zen lehen urtean zehar, hasiera guztietan gertatzen diren zailtasunak (ordutegiaren antolaketa, irakasleen eta transmisio-arloen banaketa) eta baten batzuk jarritako "trabak" gainditu behar izan genituen:

- "Hainbeste hizkuntzekin ez zaie izugarritzko nahasketa egingo buruan?"
- "Ez da gehigi izango halako ume txikientzat?"

Beldur ulergarri horiek **Psikologia ebolutiboak** erabat gaindituta ditu: **haur batek inolako ahaleginik gabe ikasten du edozein gauza; kontua da eredia eta aukera eman behar zaizkiola.**

Erabil dezagun oinarri hori hizkuntzak irakasteko: etorkizuneko ahalegina eta dirua aurreratuko diegu. Horretaz gain, naturaltasun osoz ikasiko dituzte hizkuntzok, guztiok ama-hizkuntza ikasi genuen bezala, hain zuzen ere. Burmuina plastikoa da eta berez edozer gauza ikasteko ahalmena du.

Kontua da irakasteko eta ikasteko metodo bat aurkitzea, ikastetxean eraginkortasunez erabil daitekeena, eta hezkuntza-komunitatean praktikan jartzea ahalbidetuko duen giroa sortzea.



EPSTEIN J.; RADIGUET CH. 1982
L'explorateur nu
éditions universitaires,

Ingelesaren irakaskuntza Txingudi Ikastolan



*Rosa M.ª Arano
Elena Berazadi*

Txingudi Ikastola

Txingudi Ikastola

herri batetik bestera igarotzeko mugak gainditzea errezago, eta, zenbait kasutan, derrigorrezko bihurtzen ari den une eta gizarte honetan, gero eta beharrezkoago ikusten da atzerriko hizkuntza bat edo gehiago jakin beharra, batez ere, ia nazioarteko bihurtzen ari den hizkuntzaren ezagumendua, ingelesarena alegia.

Hezkuntz komunitate osoa, administrazioa, irakasleak, gurasoak jabetu gara premia honetaz eta, bakoitzak bere mailatik, bideak urratzen hasi erronka honi aurre egiteko. Administrazioak atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzaren hasiera-unea Lehen Hezkuntzako 3. mailara ekarri du, lehen baino bi urte edo hiru urte lehenago hasten dira, beraz, haurrak atzerriko hizkuntzarekin. Honen harira datoz, irakaslearen hobekuntza plangintzak edo eleaniztun saiakuntza ikastetxe izendatzeak, eta beste

zenbait ekimen, gehienetan ingelesaren irakaskuntzari lotuak.

Ikastetxe asko, bere kabuz edo administrazioetik bultzatuta, ingelesaren irakaskuntza goiztiarrari ekiteko planak bideratu eta haietan murgiltzen dira, aldizkari honetako zenbait lanetan ikus daitekeenez.

Hezkuntzarekin lotura duten beste zenbait erakundek hirugarren hizkuntza ikasteko ikastaro, udaleku, ikasleen arteko elkar trukaketak, ikasten ari diren atzerriar hizkuntza horretako herrialdeetan egonaldiak, etab. antolatzeko ardura hartu dute.

Aipatzekoa da baita ere, seme-alabek hirugarren hizkuntza eskura dezaten gurasoek duten motibazioa eta egiten duten aparteko ahalegina: seme-alabak eskola orduz kanpoko klaseetara bidaliz, udaldietan lehen aipatutako ikastaro, egonaldi, udalekuetara bidaliz eta, zenbait kasutan, ikastetxean presioa eginaz atzerriar hizkuntzaren irakaskuntzaz plan bereziak sortzeko.

Gaurko gizartearen eskakizunak hizkuntza arloan, gura-soengandik datorren presioa, bizi dugun ikastheen arteko lehia eta zein gehiagoka hori, administrazioaren eskakizunak, etab. izaten dira askotan hirugarren hizkuntzaren irakaskuntzari dagozkion erabakien oinarri. Atzerriko irakaskuntzarekin hasteko adina, eskaini behar zaion ordu kopurua, bultzatu behar den eskuhartze pedagogikoa,... dira hartu beharreko erabakiak, azaleko azterketen arabera, azkarregi eta oker hartzen direnak, sarritan. Erabaki horiek hartzeko kontuan izan beharreko faktoreei buruzko hausnarketa egin eta horien arabera gurean gauzatzen ari garen plangintzaren berri eman nahi genuke lan honetan.

Atzerritar hizkuntzaren irakaskuntzaren plangintza gauzatzeko kontuan izan beharreko faktoreak

Atzerritar hizkuntzaren plangintzari dagozkion erabakiak egokitasunez hartzeko, gure ustez, ezinbesteko gertatzen da, maila ezberdinetako zenbait faktore aztertzea, hala nola, hizkuntz errealiategia, hizkuntz kontzeptioa bera, printzipio psikopedagogikoak, giza eta material baliapideak, etab.. Besteei inolako garrantzirik kendu gabe, gaurko honetan, inguruneko hizkuntz errealitateak duen eraginaz eta hizkuntza bat baino gehiagoren jabe-kuntzan, hizkuntzok, elkarren artean dituzten harremanez hitz egin nahi genuke.

1-Komunitateko hizkuntza bakoitzaren estatusa, onarpen maila eta erabilera guneak.

Guztiok dakigunez, Euskal Herrian atzerritar hizkuntza hirugarren hizkuntza izaten da. Hegoaldean euskara eta gaztelera dira elkarrekin bizi diren hizkuntzak eta iparraldean euskara eta frantsesa; bi egoeretan euskara eremu murrizteko hizkuntza suertatzen delarik. Dena den, hizkuntzari dagokionez, herrialdeen arabera eta ikastetxe bakoitzeko irakaskuntza eredu batetik bestera (A, B eta D) egoera ezberdin asko ikus dezakegu.

Esan bezala, euskara eremu murrizteko hizkuntza da Euskal Herri osoan, hots, komunitateko hiztun gutxik ezagutzen dutena. Azken ikerketen arabera Euskal Herriko biztanlegoaren % 24 inguru da euskaldun dei ditzakegunak. Bestalde, erabilera gune guztietan presentziarik ez du, gaztelera edo frantsesarekin erdibanatu behar dituelarik erabilera gune hauetako batzuk: enpresa mundua, merkataritza, justiziaren alorra, osasun mundua,... ia erabat erdaldunak dira. Bestela esanda, euskara, guztiz normalizatu gabea den hizkuntza dugu oraindik. Ipar Euskal Herrian gauzak areagotu egiten dira, kontuan hartzen baldin badugu, euskara ofiziala ere ez dela.

Gizarteak euskararekiko duen onarpen maila eta atxikimendua ere ez da gehiegizkoa orokorrean. Egia da, B



Txingudi Ikastola



eta D ereduak nagusitzen ari direla hezkuntza munduan, baina kalean ez du horrenbesteko isladarik. Azken finean, denok dakigu gaztelera edo frantsesa eta hauek jakinda konpondu gaitzke, euskara jakitea ez da derrigorrezko Euskal Herrian bizitzeko.

Euskarekin bizi diren beste bi hizkuntzen estatusa, aldiz, bai hiztun kopuru aldetik eta bai erabilera aldetik guztiz bestelakoa da. Gaztelera nahiz frantsesa hedadura handiko hizkuntzak izateaz gain, normalizatuak eta prestijiozkoak dira.

Bestalde, hizkuntzen irakasbideen oinarri teoriko gaurkotuenetan garbi uzten da, hizkuntzarekiko atxikimendua eta jarrera baikorra direla hizkuntza horien menderakuntzarako baldintzarik nagusienetakoak (Siguan & Mackey 1986).

Euskararen normalkuntzaren eta suspertzearen zama guztia eskolari ezin zaio leporatu askotan gertatu izan den bezala, itxaropen guztiak erakunde honetan ezarritik. Hala ere, gauzak honela, eskolak ezin du inolaz ere ahortzi, euskararen berreskuraketan, susperraldian eta normalkuntzan duen erantzukizuna. Izan ere, berari dagokio, ikasleei euskaraz jarioasunez egiteko tresneria eskaintzea, euskara erakustea alegia, eta, gutxiagotan egiten dena, ikasleen artean euskaraz bizitzeko ohitura garatzea eta honi lotuta, gurasoengan euskararen erabilearekiko jarrera positiboa eta aktiboa sustatzea.

2-Lehen hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren jabe-kuntzak duen eragina hirugarren hizkuntzaren jabe-kuntzan.

Ikuspegi ezberdinetatik abiatutako ikerketak argi uzten dute hizkuntza bat baino gehiagoren jabe-kuntza prozesuek elkarren arteko lotura hestua dutela.

Aspalditxo zioen Vigoskyk (1935) ama hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren jabe-kuntza prozesuek gauza asko berdintsuak dituztela, elkarren arteko barne lotura dutela eta hau oso aintzat hartu beharrekoa dela eskuhar-tze pedagogikoaren diseinua egitean.

Cummins-en (1979) hizkuntzen arteko elkardepen-dentziaren planteamenduek, lehen hizkuntzan eskuratu-tako zenbait gaitasun linguistikok bigarren hizkuntzaren garapenerako onuragarri suertatzen direla edo bigarren hizkuntzaren jabe-kuntza ziurtatzen dutela aldarrikatzen dute.

Psikolinguistikatik egin diren ikerketek (McLaughlin, 1984, 1985; Galambos & Hakuta, 1988) hizkuntzen arteko elkardependentziak dituen abantailaz hitzegiten dute, haur elebidunek gaitasun metalinguistiko gehiago eta hizkuntza berriak eskuratzeko erraztasun gehiago dutela adieraziz.

Hizkuntza ezberdinen jabe-kuntza besteekin elkarre-

kintzan gertatzen da. Hizkuntza bakoitza, beste hizkuntzetako eduki linguistikoak eskuratzeko, ikasleek konziente edo inkonzienteki erabiliko duten ezagumendu iturri bihurtzen da. Badirudi hortaz, lehen edo bigarren hizkuntza zenbat eta hobeto menderatu hainbat eta erreza-go eta hobeto eskuratuko direla hurrengoak.

Gainera, diskurtso generoak hizkuntza guztietan berdintsuak dira, ekoizpen baldintzei berdin erantzuten diete, eta testu egitura berdintsua dute. Hizkuntza batetik bestera aldatzen dena, bakoitzaren azaleko osagai linguistikoak dira.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa alorrek ere, berak dira hizkuntza guztietan (semantikoa, sintaktikoa, testual, pragmatikoa,...), nahiz eta hizkuntza bakoitzak alor bakoitzean bere-bereak dituen, besteengandik ezberdinak diren gauzatzeak izan.

Guzti hau honela bada, argi dago atzerritar hizkuntzaren irakaskuntzaren plangintza gauzatzean eta eskuhartze pedagogikoaren nondik norakoak zehaztean, ezin ahantz daitekeela lehenengo eta bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko plangintza.

Ingelesaren irakaskuntza

Arestian aipatutako faktoreak kontuan izanda, Txingudi Ikastolan atzerriko hizkuntzari eman diogun tratamenduaren berri ematen saiatuko gara ondorengo lerroetan.

Txingudi Ikastola, bost lineatako D ereduko ikastetxe publikoa dugu, 3 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleak hartzen dituelarik. Ikasleen % 60ak, gutxi gora behera, gaztelera du ama hizkuntza. Ikasleen familien maila soziokulturala erdiko edo erditik beherantzkoa da eta euskaraz eskolaratzeko motibazioa nahiko handia, orokorrean.

Irunek, bestalde, 55.000 inguruko biztanlegoa du eta horietatik % 24 dira euskaldunak, ingurune nahiko erdal-duna orokorrean, bistan da beraz, euskararen normal-kuntza alorrean hainbat urrats emateke daudela.

Irunen ematen den euskararen egoera hau kontuan izanda, Hezkuntz Proiektuan, Ikastolaren helburu nagusienetakoa gure ikaslegoa euskalduntzea dela adierazten da, eskola-komunitate osoaren onespina duelarik. Arlo hau oso aintzat hartua izan da hizkuntza bakoitzari eskaintzen zaion ordu kopurua, hizkuntza bakoitza lantzen hasteko unea, edo euskararen erabilera bultzatzeko iharduera osagarriak programatu orduan.

Txingudi Ikastolako irakats-hizkuntza, hasiera-hasieratik, euskaraz bideratzen denez, aparteko ahalegina eskatzen du hizkuntza honen irakaskuntzak, euskararenak. Ikaslegoarengan ikasketa-hizkuntza ziurtatu behar da, hau da, ikaslegoak ikasketetan arrakasta izateko hiz-



Txingudi Ikastola

kuntzak ez du oztopo izan behar. Hau dela eta, 3. mailara arte erakusten den hizkuntza bakarra euskara da, testu-pedagogian oinarritutako programazioa eta horren euskarri den material didaktiko propioa sortu delarik.

Euskararen oinarritzko menderakuntza ziurtatua gelditzen denengan, 3. mailan, euskararen irakaskuntzaz jarraitzeaz gain, Ingelesaren irakaskuntzaz hasten gara, curriculumean beste hizkuntzak baino denbora gutxiago duelako, batetik, (2 ordu ingelesezko saioak eta bi ordu Arte Hezkuntza ingelesez) eta bestetik, komunitatean presentziarik ez duen hizkuntza delako. Komunitatean presentziarik gehien duen hizkuntzaz, gaztelerez, alegia, 4. mailan hasten gara. Familia eta kale giroa oso erdal-dunaren eraginez, Hizkuntza honen oinarritzko erabilerak ikaslerik gehienengan, oso goiz ziurtatuak gelditzen direlako.

Hiru hizkuntzen arteko elkarosagarritasunean oinarritutako programazioa

Aipatu ditugu lehenago, hizkuntza bat baino gehiagoren jabe-kuntzan, batak bestearekiko dituen lotura, harreman eta eraginak. Zentzu honetan, atzerriko hizkuntza edo hizkuntzen programazioa ezin da gauzatu, gure ustez, beste hizkuntzetakoa, euskara eta gaztelera



gure kasuan, kontutan izan gabe. Ama hizkuntzan edo bigarren hizkuntzan ikasitakoa, hirugarren hizkuntzaren ikaskuntzarako onuragarri eta probetxugarri gerta dadin, hiru hizkuntzen programazioek lotura estuak izan behar dituzte.

Gurean, erabilera komunikatiboak edo testuak aukeratzeko orduan oso aintzakotzat hartu izan dugu printzipio hau, hiru hizkuntzetarako elkarren osagarri diren edukiak aukeratuaz, eta programaketari enfoko integratzailea emanez.

Elkarren arteko osagarritasun hau zertan den argiago ikusteko, hona hemen, hizkuntza bakoitzeko egoera komunikatiboak aukeratzeko erabilitako *irizpide nagusiak*:

Euskara

-Eskolak haurri eskatzen dizkion ahozko nahiz idatzizko erabilera komunikatiboei lehentasuna ematea, azpikurrikuluma ahalik eta gehien ezabatzeko asmoz. Laburpenak, laborategiko informeak, azalpen testuak,...Beste zenbait erabilera sozial arruntez ahantzi gabe (errezetak, berriak...)

-Adinari dagozkion interes eta gaitasunen arabera erabiltzeko izatea.

Gaztelera

-Erabilera formalei lehentasuna ematea ahoz nahiz idatziz (Vd. tratamendua, kortesia formulak, eskutitz formalak, araudiak, deskribapenak,...). Erabilera kolokial/familiarak oso ongi menderatzeak, ez baititu ziurtatzen hauek.

-Ahal den heinean aurreko beste mailetan euskaraz landuak izatea.

Ingelesa

-Gelako ahozko ikasle/irakasle elkarrekintza, ingelesez egitea ahalbideratzen duten erabilerak izatea. (Hitzen esanahia argitzeko esapideak, irakaslearen laguntza eskatzeko esapideak, kideei gauzak eskatzeko esapideak).

-Beste maila batzuetan gaztelera edo euskaraz landutako testuak izatea.

Ahozko nahiz idatzizko egoera komunikatiboak aukeratu ondoren, egoera komunikatibo bakoitzari dagozkion edukiak aukeratzeko dira: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrera, ohitura eta balioei buruzkoak hain zuzen ere.

Eduki aukeraketa ez ezik, metodologia ere, berbera erabiltzen da hiru hizkuntzetarako

Beste zenbait egoeratan idatzi izan badugu ere, (Arano, 1992, Arano, Berazadi, Idiazabal, 1994, 1996), ez gara arituko hemen ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko erabiltzen ditugun sekuentzia didaktikoak deskribatzen, luzeegi gertatuko bailitzateke. Gure ustez nabarmenenak diren ezaugarrien aipamena besterik ez dugu egingo.

Ikaste esanguratsuen printzipioak izan dira, batik bat, aintzat hartuak sekuentzia didaktikoak sortu orduan.

Ahozko nahiz idatzizko sekuentzietan ikasi behar dutenaren inguruan *ikasleek dakitena behatzen da* : gaiari buruz, produkzio egoerari buruz, esapide jakin batzuei buruz..., Irakaskuntza hortik abiatzeko asmoz, dituen ideien eta berrien arteko zubiak eraikitzen ahalegintzen garelarik. Aurrezagutza hauek jasotzeko, adinaren araueraren eta edukiaren arabera prozedura ezberdinak erabiltzen dira, maizen honako hauek: ahozko galderak, idatzizko galderak, ikaslea produkzio egoeran jarri, etab. Irakaslea erantzun zuzen eta ez zuzenen konstatazioan gelditu beharrean soilik, erantzunen nondik norakoan fijatuko da, beharrezko litzatekeen informazioa gehitzeko edo unitate didaktikoan gauzatu den estrategia didaktikoa egokitzeko.

Hasiera-hasieratik ikasleari ikasi behar duenaren zertarakoa *aurkeztuko zaio*, eginkizunaren zertarakoa, ale-

gia. Honekin, ikaslea motibatzea eta bere ekoizpenari eskola-ariketa soilaren kutsua ahalik eta gehien ezabatzea lortu nahi da batik bat. Horretarako, produkzio egoerak definitzean **nork, nori, zertaz eta zertarako** hitze-gin edo idatzi behar dion zehatz-mehatz definituko da.

Bestalde, ikasleei aurkezten zaizkien ekintzetan, ariketa horiek egiteko *jarraipideak zehatz-mehatz adierazten zaizkie*, adinez nagusiagotzen doazen neurrian zehaztasun gehiago ematen zaizkielarik, baina beti ere, ariketak egiteko estrategia aukeratzeko askatasuna eskainiaz, batez ere nagusitzen doazen heinean. Jokabide honekin ikasleek beraien ikasketa ahalik eta erarik autonomoenean egitea bultzatu nahi da. Horregatik, ariketak gauzatzeko kontsignen bakarkako irakurketa bultzatzea eta hauen ulermena ziurtatzea ezinbestekoa da, ohitura hau garatzea izango delarik irakaslearen eginkizun garrantzitsuenetariko bat.

Talde lana ere, ikasleak ikasleekin, asko erabiltzen den estrategia da nagusiaren azalpenak baino, askotan haien artekoak onuragarriago gertatzen baitira eduki ezberdinen jabekuntzarako.


Ariketen zuzenketak, gehienetan, talde osoaren aurrean egingo dira irakaslea ekintza honen gidaria besterik izango ez delarik; bere eskuhartzea ikasleek haien artean gainditu ezin dituzten arazoak konpontzera mugatuko da. Honekin, ikaskuntza prozesuan jabekuntzen *elkartrukaketa bultzatu nahi da*.

Egun ezberdinetan zehar ikasten ari direnari buruzko *sintesi lana* egiteari tarte berezia eskainiko zaio, eduki berriak barneratzen eta ikasleak iadanik dituen eskematan egokitzen laguntzeko. Lan hau eduki berri bakoitzari buruzko ariketak bukatzean, berriekin hastean eta ikasleak produkzio egoeran jarri aurretik gauzatu da batez ere, talde nagusiko edo bakarkako ariketa berezien bidez.

Sekuentzia didaktiko ezberdinetan, haien ekoizpenaren egokitasunari buruzko hausnarketa planteatuko da, horretarako sortuak diren erregistroen bidez. Honekin, ikasleei zer ikasten ari diren gogorarazteaz gain, haien ekoizpenak behartzera bultzatu nahi dira, egin ditzaketen hutsak zuzentzera bideratuz. Era berean, irakasleak haien ekoizpenen ebaluazioa gauzatzeko erabiliko dituen irizpideak azalratzea eta konpartitzea lortu nahi da.

Arte hezkuntza ingelesez

Ingelesaren irakaskuntzako orduak gehitzeko, hizkuntza honen erabilera guneak areagotzeko eta indartzeko, ikasleen Curriculumeko arlo bat ingelesez ematea erabaki zen 96/97 ikasturtean eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak eleaniztasun saiakuntza egitasmoak gauzatzeko zabalduak deialdian parte hartu genuen. Ikastola, 4 urtetarako, Eleanitzeko Saikuntza Ikastetxe



Txingudi Ikastola

izendatua izan zen.

Hizkuntzen ikas-irakaskuntzari loturiko proposamen berriek (Mohan, 1986; Cantoni-Harvey, 1987; Prabhu, 1987; Genesse, 1987; Swain, 1988 Snow, Met & Genesee, 1989; Nunan, 1989) murgiltze programei buruz edo zereginetan edo edukinetan oinarritutako proposamen didaktikoei buruz dihardutenean bat datoz, gai edo arlo bat bigarren edo hirugarren hizkuntzan irakastean, hizkuntza horren ikasketa areagotu egiten dela, komunikaziozko esanahidun testuinguru bat sartzen delako, hain zuzen ere.

Dena den, gure ustez, edukin bat hizkuntza horretan emateak soilik ez du ziurtatzen hizkuntza hori behar bezala ikasiko dutenik. Ongi aztertu behar da curriculumeko zein arlo gertatu daitekeen errentagarriena hizkuntzaren ikasketarako, besteak beste, ahalbideratzen dituen egoera komunikatiboen maiztasuna eta ugaritasuna kontuan izanda batetik eta, bestetik, haurren adina.

Era berean, ez dugu uste, hizkuntza ikasteko propio sortutako saioak ere albo batera utzi behar direnik. Izan ere, ikasten ari diren hizkuntza horretan edukin bat edo gehiago emateak ez ditu bermatzen hizkuntza horretan egokitasunez aritzeko erabilera guztiak. Zentzu honetan, ezinbesteko ikusten dugu curriculumeko edukin hori lantzeko ematen diren egoera komunikatiboen azterketa egitea eta hizkuntzako saioen bidez egoera komunikati-



bo horiek osatzea, falta direnetan ekinez batik bat. Honek, bi programazioen arteko koordinazio zehatza eskatzen du.

Bestalde, hizkuntzak ez du oztupo izan behar ikasle-en curriculumetik aukeratutako disziplinak behar bezalako garapena izan dezan. Bestela esanda, ikasleek arlo horri ezarritako helburuak atzeman beharko lituzkete, ez lukete galerarik jasan behar.

Guk ikasle-en curriculum-eko Arte Hezkuntza aurreratu dugu ingelesez emateko arlo gisa. Arlo hau osatzen duten hiru ataletatik bi dira ingelesez ematen ditugunak: Dramatizazioa eta Plastika. Musika orain arte bezala, euskaraz lantzen jarraitzen da.

Honako arrazoiek bultzatu gaituzte erabaki hau hartzera:

- Dramatizazio atalak hizkuntzaren erabilera desberdinak areagotzeko ahalbideratzen dituen abadaguneak ez dira gehiegi justifikatu behar: abestiak, leloak, jolasak, antzerkiak, ipuinen kontaketak... bi funtzio bete ditzakete. Batetik, disziplinaren izaera daudenak: gorputz adierazpena, entonazioa, keinua... Eta bestetik, Ingeles Hizkuntzako saioretan beharrezko diren hainbat errepikapen, hizkuntz egitura, esapide, ahoskera,... memorizatze eta barneratzeko.

- Bestalde, Plastika adierazpenak, abadagune oso

aberatsak eskaintzen ditu Ingelesaren erabilera indartzeko. Plastikari berezkoa zaion esparru semantikoa, neurri handi batean presente da: lan desberdinak burutzeko beharrezko den materiale eta egin beharreko ekintzak, erabili beharreko momentuan aurrez aurre daude.

Ekintzak gauzatzeko hizkuntz-erabilerak ugariak dira, hala nola, aginduak, eskaerak, adierazpenak, egiaztapenak...

Egiten diren lanen prozesuen deskribapenak (instrukzio testuak) ikasteko eta adierazteko egoera apartak eskaintzeaz gain, egingo diren ekintza desberdinei buruzko planak egin eta bukatutako lanek buruzko balorazioak egiteko aukera ere eskaintzen du.

Hortaz, adina kontuan izanda, nahiko komunikazio egoera ugari eskaintzen duelakoan gaude.

Komunikazio egoera hauek, hizkuntza lantzeko saioren bidez osatu eta indartzen dira.

Ondorioak


Atzerritar hizkuntzaren irakaskuntzak, komunitate elebidunetan eta hizkuntzetatik bat eremu murriztekoa denean, arreta berezia behar du eta planteamendu didaktiko serio eta jarraiak. Are gehiago, euskararen normalizazio bidean urrats sendoak ematea helburu denean, eta gaztelararen garapena ziurtatu behar denean, gurean bezala. Ikastetxearentzat erronka handia eta lan zaila, baina, hala ere, seriotasunez eta profesionaltasunez oratuz gero hezkuntza, ekintza osoaren dinamizatzailerik bihurtzen da.

Ez dugu oraindik gauzatu plangintza honen abantaila eta hobetu beharreko gauzen berri emango lukeen azterketa zehatz-mehatzik, oraindik programa ezartzen hasi berriak baikara. Dena den, unitate bakoitzaren bukaera irakasleekin egiten diren ebaluazio saioetan jasotako zenbait informazio azpimarratu nahi genituzke.

93/94 ikasturtean gelaratu genituen lehenbiziko aldiz ingeleseko unitate berriak eta irakasleek egoera komunikatiboak eta testuak lehenago euskaraz landuak izateak oso lagungarri zela adierazten zuten. Testuen planifikazioa bi hizkuntzetan berdintsua izaki, arlo hau lantzeko euskaraz ikasitakoari erreferentzia eginez oso arin jasotzen dute, era honetara ingelesarenak propio diren hizkuntz osagaien lanketarako asti gehiago ateratzen delarik.

94/95 ikasturtean gaztelarazko unitateak gelaratu zirenean irakasleek gauza bera azpimarratzen zuten eta bi urte geroago gauza bera adierazten dute, hots, testua hizkuntza batean landua izateak abantailak dituela.

Hiru hizkuntzetan metodologia bera erabiltzea ere abantailatzat jotzen da (hots, sekuentzia didaktiko ber-



Txingudi Ikastola

dinak hiru hizkuntzetan) hiru esparrutatik ekinaz zenbait ikas-ohitura errazago finkatzen baitira (sintesi lana, auto-behaketa, etab.)

Arlo bat, ingelesez emateari buruz, disziplinari (gai-ri) dagozkion helburuak lortzen direla esan dezakegu, ingelesa ez da oztopo izan helburu horiek lortzeko. Bestalde, testu instruktiboa lantzeko aparteko abadagunea eskaintzen duela ere argi ikusi dugu.

Behin-behineko emaitzak diren arren, plangintza honek bere posibilitateak badituela uste dugu eta gogotsu lanean jarraitzea espero dugu hala dela frogatu ahal izateko.

Bibliografia-erreferentziak

ARANO, R.M. (1992): Testu pedagogia eskolaurrean:

testu monologalak. *Pedagogia del texto-testuaren pedagogia .Idiazabal eta beste*. Labayru Ikastegia

ARANO, R.M., BERAZADI, E. e IDIAZABAL, I (1994) Una experiencia de didáctica y evaluación de discurso oral en primer ciclo de primaria CL&E, 23, 69-79 or.

ARANO, R.M., BERAZADI, E. e IDIAZABAL, I (1996) Planteamiento discursivo e integrador de un

proyecto de educación trilingüe. En M.Pujol y F.Sierra, *Las lenguas en la Europa comunitaria, vol II*. Amsterdam: editions Rodopoi, 65-88 or. 1994an "Hezkuntza eleaniztunari buruzko II nazioarteko ihardunaldietan" aurkeztutako komunikazioa.

CANTONI-HARVEY, G (1987): *Content-area language instruction: approaches and strategies*. Reading, MA. Addison-Wesley.

CUMMINS, J. (1979): Linguistic interdependence and the educational development of bilingual children. *Review of Educational Research*, 49, 222-251 (Gazt. itzulpena *Infancia y Aprendizaje*, 1983, 21, 37-61).

GALAMBOS S. J. & HAKUTA, K. (1988): "Subject-specific and task-specific characteristics of metalinguistic awareness in bilingual children" *Applied Psycholinguistics* 9 141-162.

GENESE, F. (1987): *Learning throw two languages: studies of immersion and bilingual education..* Cambridge, Newbury.

MCLAUGHLIN, B. (1984): *Second-Language Acquisition in Childhood: Volume1. Preeschool Children*. (Second edition) Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum.

_ (1985): *Second-Language Acquisition in Childhood: Volume2 Preeschool Children*. (Second edition) Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum.

MOHAN, B. M. (1986): *Language and content..* Reading, MA. Addison-Wesley.

NUNAN, D. (1989) *Designing Tasks for the Communicative Classroom*. Cambridge, Cambridge University.

SIGUAN, M & MACKEY, W. (1986) *Educación y bilingüismo*. Unesco Santillana

SNOW, M. A.; MET, M.;GENESE, F. (1989): A conceptual framework for the integration of language and content in second/foreign language instruction". *Tesol Quaterly* 23/2 201-217.



SWAIN, M (1988).: Bigarren Hizkuntzaren ikaskuntza areagotzeko edukin-irakaskuntza manipulatatu eta osatzea. *Murgiltzea eta Irakaskuntza elebiduna* . Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1996.

VIGOTSKY, L.S. (1935): El problema del multilingüismo en la infancia en *Desarrollo mental del niño y educación*. Editora estatal.

Gauzak egin ez hizkuntza ikasi

• The Knowhow Book of Puppets (4-8)

Haur txikiak, txotxogiloen mundura hurbiltzeko hona hemen baliabide bat





• Children's art and crafts

Haur Hezkuntzako ikasleen adierazpen artistikoa garatzeko proiektu ugari eskaintzen dira liburu honetan.

• What shall I grow? (4-8)

Liburu honek landareen inguruko iharduerak antolatzen ditu aukera paregabea eskaintzen du.



• What shall I do today? (4-8)

Haur txikien burutzeko ekintza anitzak deskribatzen dira

JAKINGARRIAK



GRAFIKOAK
Gaiñ

Monografikoa

Eskeletako Esperientziak

Baliabidea

Ber

Eskeletako Esperien